

Molotoff-ek Irrati Astea antolatu du

■ Mariano Ferrer eta Eva Forest kazetariak, Irrati Eguna eta abar izango dira ■ Otsailaren 11tik 15era da ■ Irratiaren 15garren urteurrena ospatzeko antolatu du.



Molotoff Irratiko tekniko eta esatariak Sagastialdeko estudioan.

MOLOTOFF Irratiak 15 urte bete ditu aurten. Orain arteko bidea ospatzeko asmoz Molotoff-ek *Irrati Astea* antolatu du otsailerako "Komunikabideen gaia ardatz hartuta, gaurkotasan haundiko hainbat kezka eta eztabaida mahai gaineratu nahi ditugu", dio Molotoff-ek.

ELKARRIZKETA ETA HITZALDIAK

Irrati Asteak egitarau zabala izango du. Prentsa munduan izen haundia duten bi kazetari izango dira Irrati Astea. Ma-

riano Ferrer *Herri Irratiko* esatari eta *El Mundo del Pais Vasco* Iritzi saileko burua elkarrizketatuko du Molotoff-ek. Hori otsailaren 11n izango da, astelehenean. Asteartean, Eva Forest kazetariak hitzaldia emango du Biterin: *Komunikabideen manipulazioa nazioartean*. Asteazkenean, berriz, Patxi Azpillaga soziologo eta EHUko irakasleak emango du hitzaldia hedabideak eta Euskal Herria gaiaren inguruan.

Ostegunean, Hernaniko komunikabideei buruzko mahai

ingurua egingo da eta ostiralean zine foruma: *Primera plana* filma ikusi eta komentatu.

IRRATI PROGAMA KALEAN

Larunbatean Molotoff-ek Irrati Eguna egingo du eta goiz osoko programa Plaza Berriatik emitituko du: herriko talde eta pertsonen elkarrizketak egingo zaizkie. Goiz berean, antzerkia ere izango da -*Trapu Zaharrak* taldea-. Gauean, Fes-tafaria: *Rita la Kabaretera* eta *Aritz Sound System*, Arizmendin. □

Zangarik ireki gabe, saneamendua berritzeko metodo berria probatuko dute Hernanin

AÑARBE-k saneamendua berritzeko sistema berria probatu eta erakutsiko du. Gay Mur atzetik Larramendi kalera dijoan tuberia berrituko dute. *Pipebursting* izena du metodoak eta egiten duena da: hondatutako tuberialar taladro moduko aparato bat sartu, baina, atzetik tuberi berria dakarkiel. Sistema horrek egiten du bueltaka-bueltaka tuberi zaharra desegin eta bazterrean utzi. Atzetik polietilenoazko beste tuberia dakarki erantsita eta instalazio

zaharra desegin ahala sartzen du berria, lurrik mugitu beharrik gabe. Sistema azkarra eta merkea da.

Teknika hori lehen ere erabili izan da, baina, diametro txiki-tuboekin. Lizeagan 800

mm-ko tuberia aldatu behar dute eta diametro horiekin Europan egiten den aurreneko proba da. Obra Hernaniko Udaleko Hirigintza sailak eskatuta egingo da. Erakustaldia: 11:15-etan. Gay Mur atzean. □

Helduen Hezkuntza zentroak (EPA) matrikula zabalik

■ Otsailaren 1era arte izango da, goiz eta arratsalde. HHI-EPAk gaur zabaldu du bigarren lauhilabeteko matrikula eta otsailaren 1 arte izango du zabalik. Goizetan, 12:00-13:00 eta arratsaldeetan 17:30-19:00. HHI-EPA zentroa publikoa da. Formazio guztia eta DBH titulua ateratzea debalde da. HHI-EPA Antzolan 62an dago. 943-335318. □

Ongintzak zuzendaritzako bilera du bihar

■ Zortzi puntu ditu gai ordenean ■ 17:00etan.

Ongintzak asteroko bilera du bihar tratatuko duen puntu gastearrean. AGUIFES eta Ongintzaren arteko lankidetzaren hitzarmena da zuzendaritzak zuzendaritzak hitzarmena da. □

Doberak hasi du idazkuntza ikastaroa

■ Euskaraz jakin bai, baina, hobeto idatzi nahi duen jendearentzat da ■ Sei hilabeteko ikastaroa da.



10 lagun matrikulatu dira idazkuntza ikastaroan.

DOBERA Euskara Elkarteak euskaraz hobeto idazteko ikastaroa antolatu du eta joan den astelehenean hasi zen. Idazketa teknika, arauak eta abar erakutsiko dira. Baina, batez ere praktikoa izango da. 10

persona matrikulatu dira eta Udal Euskaltegi eta AEK-ko irakasleek emango dute: Maite Telletxea, Juanbau Erauskin eta Oihana Romerok. Ikastaroa sei hilabetekoa da eta astelehenero hiru ordu emango dira. □

■ FUTBOLA

Hernanik urrezko puntu bat ekarri zuen Oiartzundik (0-0)

■ Jubenilak igoera postutan, larunbatean irabazita.

HERNANIK puntu bat eskuratu zuen larunbatean Oiartzunen. Zuriberdeek partidu ona egin ez arren, etxetik kanpo puntuatzea lortu zuten eta hori ona da gora begira jarraitzeko.

JUBENILAK GOIAN Liga Nazionaleko gazteak ere denboraldi bikaina egiten ari dira. Larunbatean Getxoko Arenasi 3-0 irabazita, igoerako postuetan sartu dira. □

Allianz 
ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Tel.: 943 557 326
656 735 109

AMAIA
RRANDEGIA
ARRATINAK
ITSASBIAK
FRESKO ETA
IZOZTUAK
Kardaberaz 34
Tel. 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 HERNANI


mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

Ibai mendi
Kirolak
Nafar kalea 23
Tel: 943 333724
HERNANI

*Arantza, mendia...
Kirol materiala...*

Ibai mendi
Nagusia 10
Tel: 943 590372
ANDOAIN

Ibai mendi
Kirolak

Merkealdietan prezio bereziak:
GORE - TEX BOTAK 9.990 pta
XIRA INPERMEABLE TRANSPIRABLEA
14.990 ptatik
COLUMBIA FORROAK 9.990 ptatik
COLUMBIA ALKANDORA 3.500 pta (-%50)
MENDI eta ESKIATZEKO GALTZAK (-%20)
ZAKU eta MOTXILA ESKEINTZA.

Marka hauek aurkituko dituzu gure dendan:
TRANGO, GRIFBONE, EIDER, SALOMON, BESTARO, TUKLAND, LINE 7, ...

■ ERRUGBIA

Hernanik errez Iruñari: 28-13

■ Jubenilek esku eskura dute Euskadiko txapelketa, larunbatean Durangon 12-40 irabazita.



Hernani Iruña baino gehiago izan zen atzo Landaren.

ASTEURU ona izan da Hernaniko errugbiarentzat. Seniorretan, 28-13 nagusitu zitzaion Hernani Iruñari. Nafarrak fisikoki ondo zeuden artean eutsi zieten etxeko, eta atsedendian markagailua paretsu: 11-8. Baina, bigarren zatia aurrera joan ahala, hernaniarren nagusitasuna bistakoa izan zen. Hiru

entsaio jarraian eginda, partidua erabaki zuten. Azkenean, 28-13 Hernani nagusi.

TITULUA GERTU

Jubenilek, berriz, Euskal liga esku eskura dute aurten ere. Liga amaitzeko bi partidu falta dira eta bi puntuko abantaila dute. Hala ere ez da komeni gehiegi konfiatzerik. □

Sukaldaritza makrobiotiko ikastaroa

■ Asteartean da Errioguarda jatetxean ■ 17:00-etatik 20:00etara.



Sukaldaritza makrobiotikoan otordua preparatzen.

OTORDU makrobiotikoak egiten ikasi nahi duenak datozen bi hilabeteetan badu aukera Hernanin. Aurreko asteartean hasita, 15-20 lagun inguru dabilta sukaldaritza makrobiotiko ikastaroan. Ikastaroa teorikoa eta praktikoa da: zer jan, eta, batez ere, urte garai bakoitzean, zer produktoek zer propietade dituzten, nola preparatu eta abar. □

■ BOLEIBOLA

Hernanik 3-1 irabazi dio Riojari

■ UPV Hernanik aurten ere ez du areriorik eta partiduak irabazi eta irabazi darrai. Larunbatean La Riojari irabazi zion 3-1. □

■ ESKUBALDIA

Hernanik Urdaibai mendean hartu zuen, 21-17

■ URDAIBAI talde bizkaitarra lider moduan etorri zen larunbatean Hernanira. Baina, etxeko taldeak hortzak ederki erakutsi zizkion eta partidu ona eginda, 21-17 irabazi zuen. Garaipen honekin Hernani 3 garren da eta bi lehenengoetatik oso gertu jarri da. □

■ WATERPOLOA

Hernanik 8-5 irabazi dio Askartza liderrari

■ GARAIPEN bikaina eskuratu zuen larunbatean waterpoloko lehen taldeak. Askartza liderraren bisita jaso zuen eta 8-5 irabazi zuen Hernanik. **Golak:** Mendoza 2, Maroño 1, Gil 1, Bereziartua 1 eta Lumbreras 3. □

■ PELOTA

Garmendia-Zabala eta Alvarez-Arruti garaile

■ LARUNBATEAN Kronika eskupelota txapelketako bi partidu jokatu ziren. Lehenengoan Garmendia-Zabalak 22-8 irabazi zieten Joxe-Arrozpideri. Bigarrenean, Arruti-Alvarez 22-12 nagusitu ziren Aritz-Mikelen aurrean. Datorren larunbateko partiduak: Arano-Gorka/ Intxaspe-Goiburua; eta Tutu-Iturbe / Pello-Alex. □

Elur-Txori elkarteak aldatu du junta



Elur-Txoriko junta berriko eta aurrekoak larunbateko bazkarian.

ELUR-Txori elkarteak larunbatean egin zuen atera den junta eta sartu den berriaren arteko bazkaria. Mikel Armerdariz lehendakari berriak eskerroneko eta zorian hitzak izan ditu Koldo Monge eta bere taldearentzat: "Lan ona egin dute, gestio ona, gastoa ere ona eta dena oso ondo eraman dute" esan dio Armenda-

rizek Kronikari. "Horrexe-gatik txalo handi bat eskaintzen diet".

Aurrera begira, Elur-Txorik *kaldereroak* ditu orain aurrera. Horretaz gain, antolatzen ditu: Hernani-Leitza mendi ibilaldia, bertso bazkaria, Baseritar eguna San Joanetan, Sagardo txapelketa, mus txapelketak eta abar. □

Daniel Peral-en erakusketak arrakasta

Erakusketa ostirala arte egongo da zabalik, Biterin.



Peral arrabita (rabel) jo eta kantari, eta jendea gozaten.

HERIOTZAK

Maria Luisa Iriarte Igoa

Larunbatean hil zen 70 urte zituela

Ignazia Galardi Otaegi

Larunbatean hil zen 85 urte zituela

Maria Huarte Arribillaga

Larunbatean hil zen 87 urte zituela

Hileta elizkizunak, gaur astelehena, 19:00etan, Juan Bataiatzailea parrokian.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak:
943 550093
▶ Udaltzaingoa:
943 333288
▶ DYA:
943 464622
▶ Anbulatorioa:
943 557750
▶ Jokalari anonimoak
943 331103

✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Bulnes
Etxeberri - La Florida
☎ 943 557738
▶ Gaeuz: Gil
Lasarte - Nagusia 24
☎ 943 361529

✚ ASTEARTEA

▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793

▶ Gaeuz: Acha-Orbea
Lasarte-Hipodromo etor.6
☎ 943 363549

✚ ASTEAZKENA

▶ Egunez: Correa
Antziola 44
☎ 943 551933
▶ Gaeuz: Urbistondo
Lasarte. San Francisco 18
☎ 943 366567

GALDUTAKOAK

■ Aurreko igandean *gameboy* more bat galdu zuten Plaza Berrian. Aurkitu duenak Akeiten utzi lezake. Ordaina izango du.

DORRONSORO



Bertan egindako kalitatezko ogia

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L
Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18
20120 HERNANI

KIROLAK - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA	TALDEAK	BOLEIBOLA	TALDEAK	WATERPOLOA	TALDEAK
Gorengo maila	Oñartzun 0 - Hernani 0	1. Autonomikoa	Hernani 3 - La Rioja 1	Euskal Herriko Liga	Hernani 8 - Askartza 5
Emakumezkoak	Hernani 2 - Touring 2	ESKUBALDIA	TALDEAK	Euskal Herriko 2. Maila	Hernani B 1 - Askartza 17
1. Erregionala	Vasconia-Hernani	Euskal Herriko liga	Hernani 21 - Urdaibai 17	Euskal Herriko liga Neskek	Hernani 6 - Askartza 11
Gazteak L. Naz.	Hernani 3 - Arenas 0	ERRUGBIA	TALDEAK		
Gazteak Ohor.	Hernani 1 - Sto. Tomas 3	1 Euskal Liga	Hernani 28 - Iruña 13		
Kadeteak Ohor.	M ^e Bihotsa 1 - Hernani 2	Jubenilek. Euskal Liga	Durango 12 - Hernani 40		
Kadeteak 2. Mai	Hernani 0 - Kostkaz 1	Kadeteak. Lagun.	Irun 15 - Hernani 40		
Haurren Ohor.	Hernani 2 - Touring 1	Infantilak (lagunartekoa)	Irun 10 - Hernani 5		
PELOTA	BIKOTEAK	BIKOTEAK	PELOTA	BIKOTEAK	BIKOTEAK
Euskal Herriko Txapelketa			Udaberri Txapelketa		
Eskuz banaka. Kad.	Mikel Arrieta 13	Intxaurrondo 22	Paleta Iarruz.	Lizeaga-Lujanbio 35	Oiangu 22
Eskuz binaka. Jub.	Adurtza 2	Alvarez-S. Sebastian 22	Pala motza.	Gazteleku 40	Ubarretxena-Galarza 28
Paleta Goma. Jub.	Burutaran-Valero 16	Aufamendi A 30	Eskuz binaka. Kad.	Zazpiburri 8	Gurrutx.-Gorrotza 22
Paleta Goma. Jub.	Hoz-Lujanbio 30	Aufamendi B 26	Eskuz binaka. Kad.	Lasakao 3	Erdosio-Apsolaza 22
Paleta Goma.	Manzizid-Martinez 30	Errekalcor 10	Eskuz binaka. Jubenilak	Añorga 22	Otegi-Elizalde 18
Gipuzkoako Txapelketa			Kronika txapelketa		
Eskuz binaka. Inf.	Zurriola 2	Fernandez-Ojuel 18	Eskuz binaka	Aritz-Mikel 12	Alvarez-Arruti 22
Eskuz binaka. Inf.	Gazteleku 3	Zabala-Aizpitarte 18	Eskuz binaka	Joxe-Arrozpide 8	Garmendia-Zabala 22